

## **losu Murgia: “herritarrekin egiten ari gara gure programa eta ez beste batzuk bezala multinazionalen bulegoetan”**

Udal eta foru hauteskundeetan aurrean gaude, baina Gizarteak urrun ikusten ditu oraindik, urrun ikusten duenez ohiko politikarien jarduera. Programa politikoa izan behar da Hauteskunde garrantzitsu hauetan lehiatzeko tresna baina programa horrek gizartearen nahari erantzun behar dio, bere ahotsaren oihartzuna izan, eta ondoren, politikan aritzen garenon lan gida. Gizartearengana ahalik eta hurbilena izan behar den programa politikoa.

Aralarrek badaki alderdi politikook gizartearen zerbitzuan gaudela, gure ideietatik abiatuta gizarte entzun eta gizarte justuago baten alde egiteko. Guk, aralarkideok, hitz egin, zin egin, beste alderdi batzuk irain edo oihu egi baino Gizarteari entzun nahi diogu, zuek esan behar duzuen entzun nahi dugu, kontrastatu nahi dugu, parte hartzea bultzatu nahi dugu gure programa politikoa egitean.

Aralarrek programa egiteko lan dinamika argia jarri du mahi gainean: lehenengo fasean zirriborro bat lantzen ari gara militante guztien artean, lurralde guztien artean. Zirriborro hori eduki ostean gizarte mugimendu eta sozialekin kontrastatuko dugu eta egokituko dugu haiek esango digutenarekin. Eta ezin dugu ahaztu gaur egun gizarteak, bere ahotsa entzun arazteko bide ugari landu dituela, kalea, gizarte mugimenduak, elkarteak, web 2.0 deitutakoa eta abar, eta guztiari egongo gara adi.

**Aralarrek, beraz, Gizartearen nahiekin eta desioekin eratuko du bere programa politikoa, ezkerrekoa eta abertzalea izango dena. Krisi eta langileen eskubideen zapalketa latsa honen aurrean gizarteak ezkerreko politikak eskatzen dituelako, banketxe eta multinazionalen jardueri aurre egiten diona. Aralarrek herriz herri, auzoz auzo eta txokoz txoko egiten ari da bere programa eta ez beste batzuek bezala Petronor edo Iberdrola bezalako enpresen bulegoetan.**

**PSE-k eta PP-k fronte espainolista osatu dute baina PNV batu zaie politika neoliberalak aurrera ateratzeko. Atzo pentsioen kontrako eraso burutu zuten PNV lagun zutela, eta bihar PNVren lagunek Iberdrola sarituko dute. Atzo Aresen ertzainek langileak jipoitu zituzten eta PNV-k PSOE lagundu behar du Madrilan, hori bai, duela gutxi PNV-ko buruzagi ohi batek gidatutako Petronorrentzat Franco garaiko baimena luzatu zioten herriaren iritziaren kontra. Hauek gauza guztiengatik Aralarrek ezker abertzale eraginkorra behar dela argi dauka, gizarteak argi daukan moduan. Politika egiteko beste era bat eskatzen du gizarteak eta hori da Aralarrek eskaintzen duena. Aralar da eta izango da Ezker abertzale eraginkorra.**

Aralarren programak ardatz zehatz batzuk izango ditu:

- Bakea. Gernikako akordioa “hoja de ruta” jarraituko da izaten Aralarrentzat.
- Abertzaletasuna. Abertzale legez espaniako unionismoaren aurrean, PP eta PSEren aurrean, Aralarrek Badaki zer egin behar duen.
- Ezkerreko balio aldarrikatuko dugu, krisi honen aurrean betiko proposamen politikoak baliagarriak ez direla, PP, PSE baina baita PNVk ere bultzatzen dituzten neurri ekonomikoen aurrean Aralar egongo da alternatibak eta neurri ekonomiko sozialago eta justuagoak proposatzeko.
- Politika parte-hartzailea. Ustelkeri eta iruzurraren kontrako politikak egiten. Politika eta lobbi ekonomikoaren aurrean dauden loturak salatzen eta apurtzen. Politika kaleko jendearentzat eta jendearekin egin behar dugulakoan gaude eta ez lehen esan dugun moduan Petronorreko bulegoetan esate baterako.
- Ekologista. Gaurko errealitateak, gaurko krisia ez da soilik ekonomikoa baizik eta ekologikoa ere bada. Krisiaren atzean dauden arrazoiak ekonomikoez gain ekologikoak edo Nola ulertzen dugun progresoa ere badago. Perspektiba hori landu nahi du Aralarrek bere mezu politikotik.
- Euskaltasuna. Euskara gure hizkuntza da eta defendatu behar dugu ez bakarrik Euskararen kontra jotzen dutenen aurrean baizik eta Euskara bultzatzen ez dutenen aurrean ere.

Aralarrek irizpide ideologiko hauekin eta ardatzekin Euskal Erkidego Autonomoan eta Nafarroan ezinbesteko erreferente politikoa bilakatu da eta gure egoera indartuko dituzte herritarrek

Lurralde guztietan eta orain baino herri gehiagoetara heltzea dugu helburua. Instituzio guztietan egongo gara eta hiriburu guztietan lan egiteko ezkerretik gizartearen alde.

Bilbo 2011-01-28